

27

HORI ETA, HORI EDO ETA HORRELAKOEN IDAZKERA

Eta eta edo juntagailuak juntaduraren erdian kokatzen dira normalean eta, hortaz, juntadura bururatzen duen osagaia izan ohi dute gehienetan ondoan. Zenbaitetan, ordea, azken juntagaia esan gabe utzi delako, juntagaia lekuz "trukatu" direlako edo, besterik gabe, juntagailua aurreko osagaiari enklitikoki lotu zaiolako, honako egitura hauek eratzen dira:

*Pellok edo esango zuen hori.
Entzun edo egin du horrek.
Iñakirekin eta ibili da.
Amaiak eta ondo egingo dute hori.
Banoa, berandu da eta.
Partidua irabazi dute eta, poz-pozik etorri dira.
Berandu zela eta, gurean geratu zen lotan.
Larri dabil, krisia dela eta.*

Horrelakoetan juntagailua bereiz eta marratorik gabe idaztea proposatu zuen aspaldi Euskaltzaindiak, beharrezkoa izanez gero ondoan koma ipiniz (*Euskera XVI*, 1971, 158-159). Halaz guztiz ere, gomendioak gomendio, marratxoa ipintzen jarraitzen dute idazle batzuek zenbaitetan, irakurketarako lagungarri delakoan.

Zer esan horretaz?

Egitura generikoa eta antzematen erraza denean, edo juntaduraren ondoan datorrena juntaduraren osagai ezin izan daitekeela garbi ikusten denean, ez dirudi marra jarri beharko litzatekeenik:

*Nora joango ziren, bada? Zinera edo...
Hor daude Begoña eta, barrura sartzeko beldur.
Goizeko hiruretan edo hasten dira lanean.
Igandeetan eta zinera joaten ziren.*

Perpau konplexuagoetan, ordea, gauzak ez dira beti hain errazak gertatzen eta marratxoa oso lagungarri gerta daiteke egituren esaldia hobeto ulertzeko:

*Esan didate zuen etxean-edo beste egun batean agertuko direla beharbada.
Harrituta zeuden, itsusia zen-eta zuk esan zenuen hura.
Ez dira-eta hamabost egun Mikel Isabelekin luzaz aritu zena.*

Ezer ipini gabe ere utz daitezke perpau horiek, jakina, gorago esan bezala. Baina ezin uka daiteke noraezekoa ez bada ere lagungarri behintzat gertatzen dela horrelakoetan marratxoa ipintzea. Horregatik, behartu ez baina aukera bederen utzi behar zaio idazleari nahi duenean marratxoaren bidez testua irakurterrazago egin dezan horrela iruditzen zaionean, itxurak itxura, inportanteena testuaren irakurgarritasuna baita.

Honekin batera aztertu behar dira *hori dela eta* moduko esapideak. Hauetan aukera bat baino gehiago dugu, ez bakarrik marraren kontua, baizik *eta / taren* artean egin beharreko aukeraren arazoa ere hor baita:

Hori dela-ta.
Hori dela eta.

Esan behar da, hasteko, esapide hau, tradizioaren arabera, batez ere Hegoaldean bakarrik erabili dela, eta nahiko berria dela. Neurri handi batean *hori dela-ta* da nagusi ageri dena, nahiz oso-osorik, hau da, *hori dela eta* bezalakoak idatzi dituzten idazleak ere badiren Iturzaeta, Soroa, Iraizoz, Enbeita, Bilbao, Uztapide, Txirrita, Akesolo, Etxaide, Orixe, e.a. Mitxelena ere sistematikoki *zer dela eta* bezalakoak erabiltzen zituen batuan idazten zuenean.

Hala ere, kontuan hartu behar da euskararen tradizioan *hori dela-ta* erabili izan dutenek *ta* erabili dutela bestela ere bokal ondoan beti: *Mirari ta Antton, Jone ta Mikel*, e.a. Beraz, kontua ez da nola idazten zuten esapide hau, edo honen tankerakoak, baizik nola idazten zuten *eta* juntagailua. Batasunerako *eta* aukeratua du Euskaltzaindiak, salbuespenik gabe. Orduan, badirudi egokiena litzatekeela esapide hauetan ere *eta* mantentzea, horrela idatzi duten autore asko dagoelako, batetik, eta horrela erabili ez dutenek esapidearekin zerikusi zuzenik ez zuten arrazoiengatik aukeratu dutelako beste idaz-tankera hori, bestetik.

Horrenbestez, hau da Euskaltzaindiaren erabakia:

1. Egitura hauetan guztietan ageri diren juntagailuak osorik idatziko dira beti: *eta, edo*.
2. Egitura agerikoa eta antzematen erraza denean, bereiz idatziko da juntagailua —ondoan koma izan edo ez—, bere garaian Euskaltzaindiak erabaki zuen bezala (*hori eta, hori edo, hori dela eta*).
3. Perpaus konplexua denean, ordea, beharrezkoa izan gabe ere, aukeran izango du idazleak juntagailuaren aurrean marrazkoa ipintzea, testua ulertzeko lagungarri dela iruditzen bazaio (*hori-eta, hori-edo, zer dela-eta*).

(Euskaltzaindiak, Bilbon, 1995.eko otsailaren 24an onartua)